



HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2023KO OTSAILAREN 3KO EBAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO LANGILE FUNTZIONARIOEN ESTATU MAILAKO 2022/2023KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA MEREZIMENDUEN BAREMOAN LORTUTAKO PUNTUAZIOA ARGITARA EMATEN DITUENA

Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioeko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2022ko urriaren 14), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko abenduaren 13ko ebazpenaren bidez eman ziren onartutako eta kanpoan utzitako behin-behineko zerrenda, eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioak argitara.

Aipatutako 2022ko urriaren 7ko aginduak, hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak berrikusi dira eta, behar zirenak aintzat hartu ondoren, aldaketak egin dira. Halaber, barematzean atzemandako beste akats batzuk ere zuzendu dira. Akats horien ondorioz, parte-hartzaile batzuek puntuazio handiagoa edo txikiagoa izan dute baremoaren zenbait ataletan.

Horiek horrela, behar ziren aldaketak egin ondoren eta Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak I. eranskinean ezarritako baremoaren arabera esleitutako puntuazioa adieraztearekin batera.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketatik at geratutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, arrazoia adieraztearekin batera.



Hirugarrena.- Interesatuek gorako errekurtsua jarri ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 3a